

Gizakiak gizatasuna galdu du

Miren AZKARATE
BADIOLA

Higuina, tristura eta hase-
rrea eragiten dizkirate, az-
kenaldian, migratzaileen
aurkako erasoek eta ira-
kurtzen ditudan albisteek. Ez dakit
zehazki zein ordenatan, baina asko
kezkutzen nauen zerbait da. Gehiago
egongo dira, baina lerroburu hauek
azken hamar egunetan irakurritakoak
dira: 41 pertsona hil dira Lampedusa-
ko uretan, dozenaka familia egarriz hil
dira Tunisiako desertuan, kartzela-
itsasontzi bat eraiki dute Erresuma Ba-
tuan, Texasko Rio Grande ibaian zerra
flotagarriak jarri dituzte.

Zein baino zein lazgarriagoa, kon-
tuan izanik pertsona batzuen bizitzaz

(askotan, galdua) ari garela hizketan
eta beste pertsona batzuek eragindako
sufrimenduaz, hain zuzen ere. Zer
bihurtu da gizakia horrelakoak buru-
tik pasatu eta ideia horiek burura era-
mateko? Eta zer bihurtu gara gainon-
tzekoak egunero hau begien bistan
ikusi eta ezer gertatuko ez balitz beza-
la gure bizitzekin aurrera jarraitzen
badugu?

Badago telebistan serie bat hasieran
hau dioena: «Gizakia da plazerez tor-
turatu eta hiltzen duen animalia baka-
rra». Egia galanta!

Bizitza hobe baten bila doaz beste
herrialdeetara, ez besterik. Eta zerekin
topatzen dira? Haiek baino gehiago di-

rela uste duten haien espezie bereko
batzuekin, eta haiek akabatu nahi di-
tuzte ez direlako leku eta baldintza
berberetan jaio. Nor da zein erabaki-
tzeko “bere” herrialdean nor sartzen
den eta nola, eta ez bazaio gustatzen
ez uzteko sartzen eta are larriagoa, hil-
tzen utzi edo hiltzen laguntzeko?

Zergatik onartzen dugu, adibidez,
goi mailako kirolean atzeritar bat eta
ez herrialde bereko iturgin bat? Zerga-
tik irekitzen diogu atea Ukrainako ge-
rratik ihesi datorrenari eta ez Nigeria-
ko gerratik datorrenari?

Aspaldi galdu nuen sinesmena hu-
manitatean, baina gizakiak bere giza-
tasuna galdu duela ohartu naiz. •

Delirioa

Amagoia MUJKA
TELLERIA

Psikopatologian, delirioa kon-
bikzio sakon batekin bizi den
sinesmen gisa definitzen da,
nahiz eta ebidentziak kontra-
koa erakusten duen.

Duela gutxi Mario Biondo telebista
kameraren inguruko dokumentala
ikusi dut. Duela hamar urte hil zen,
ebidentzia guztien arabera bere bu-
ruaz beste eginda. Bada, bere familiak
ez du sinesten hori gertatu zenik eta
hamar urte daramatza ustezko hilketa-
ren hipotesia eraikiz eta puztuz. Ez da-
kit zer gertatu zen, baina ematen du
familiararen mina delirio bihurtu dela.
Eta delirioak mina areagotu besterik
ez du egiten.

Parean tokatu da Thailandiako hilke-
ta ere. Ez du azalpen handirik behar.
Telebista espainolak piztu besterik ez
dago detaileak ezagutzeko –zer de-
montre egin behar ote zuten abuztuko
arratsalde sapa eta geldoetan Thailan-
diakoa gertatu ez balitz? Zenbat tele-
bista ordu bete ote dituzte dagoene-
ko?–.

Harrituta nago, baita amorratuta
ere. Daniel Sanchok Edwin Arrieta aka-
batu eta bere gorpua txikitu du. Gor-
pua ezkututzen saiatu da eta hilketa
aitortu du. Bada, telebista espainole-
tan delirioa elikatzen ari dira egunero.
Ukazioa, zalantza, nahasmena eta us-
teak, kiloka eta orduka. Martxa hone-

tan hiltzaileak berak zalantza egingo
du gertatu denaz.

Amoragarria iruditzen zait ebiden-
tzia; gizon gazte ilehori ustez arrakas-
tatsu batek –sare sozialetan arrakasta
distiratsua saltzen duenak– zirujau ko-
lonbiar beltzaran homosexual bat aka-
batu du. Eta badirudi horrek sekulako
zirkuitalaburra eragin duela askoren
buruan. Aldrebes izango balitz, lasaia-
go lo egingo lukete.

Errealitateak zure estereotipo eta si-
nesmenak astindu eta hankaz gora jar-
tzen dituenean, bi aukera daude: uste
horiek zerren gainean eraikiak dauden
hausnartu edo gertatu dena ukatu eta
delirioan itotzea. •